

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

512

36/2024 EBAZPENA, urtarrilaren 16koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariarena, zeinaren bidez argitaratzen baita 2023ko abenduko lekualdatzeko-lehiaketako zikloko destinoen eskaintza, Fakultatibo Mediko eta Teknikoen A1 lanbide-taldeko Emergentsietako Fakultatibo Espezialista Medikoen kategoria/lanpostu funtzionala eskuratzeko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorreak, destinoa Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan izanik.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoan oinarritzko destinoak betetzeko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorren prozeduraren oinarriak onartu ziren.

Aipatutako erabakiaren azken xedapenetako bigarrenak ezartzen duenez, erabakia garatzeko, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiari eskumena ematen zaio beharrezko ebazpen edo instrukzioak eman ditzan, erabakia egoki eta zuzen aplikatu dadin ente publikoaren zerbitzu-erakunde guztietan.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren urriaren 21eko 1307/2021 Ebazpenaren bidez (azaroaren 8ko EHAA, 221. zk.), lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorra deitu zen Emergentsietako Fakultatibo Espezialista Medikoen kategoria / lanpostu funtzionalerako, Fakultatibo Mediko eta Teknikoen A1 lanbide-taldekoa, destinoa Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan izanik.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren 4.2.1 apartatua xedatutakoari jarraituz, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen Zuzendaritzak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren webgunean argitaratuko du destinoen eskaintza.

Azaldutako guztiaren ondorioz, eta pertsonalaren arloan indarrean dagoen legeriak ematen dizkidan eskumenez baliatuz

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Argitaratzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan destinoa duen lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorren 2023ko abenduko zikloko destinoen eskaintza, Fakultatibo Mediko eta Teknikoen A1 lanbide-aldeko Emergentsietako Fakultatibo Espezialista Medikoen kategoriarako / lanpostu funtzionalerako, Ebazpen honekin batera doan eranskinaren bidez.

Ebazpen honen bidez egiten den deialdiaren zikloan data hauek hartu dira erreferentziazat: 2023ko urriaren 31, eskainiko diren lanpostuak hautatzeko, eta 2024ko otsailaren 21a, eskakizunak betetzeko, merezimenduak alegatu eta baloratzeko, eta destinoa aukeratu edo aldatzeko.

Lehiakideek eskabidea aldatu ahalko dute, baita destinoen aukeraketa ere, 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren oinarrietan eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren

2024ko urtarrilaren 31, asteazkena

urriaren 21eko 1307/2021 Ebazpenean araututakoari jarraikiz, 2024ko otsailaren 21era arte, 2023ko abenduko ziklo honi dagokionez.

Destinoen aukeraketa aldatzeko, lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorrean parte hartu ahal izateko gaitu den aplikazio informatikoa erabiliko da.

2023ko abenduko ziklo honetan, 2024ko otsailaren 21era arte egindako destino-aukeraketa hartuko da kontuan, aldeztu aurretik adierazitakoaren arabera.

2023ko abenduko ziklo honetan, prozesu orokorrean egindako eskabideak jasoko dira, baldin eta gutxienez zikloan eskainitako destinoen bat badute 2024ko otsailaren 21a amaitzen denean.

Bigarrena.– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legean eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren estatutu sozialak ezartzeko azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezarritakoaren arabera, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa jarri ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena EHAAan argitaratzen den egunaren hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urtarrilaren 16a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendaria,
LUISA LARRAURI EREÑOZAGA.

2024ko urtarrilaren 31, asteazkena

ERANSKINA

DESTINOEN ZERRENDA

KATEGORIA: FAK. ESP. LARRIALDIETAKO MEDIKUA

LANPOSTU FUNTZIONALA: FAK. ESP. LARRIALDIETAKO MEDIKUA

Destino kop.	Zerbitzuetako erakundea	Destinoa
1	Emergentziak	Emergentziak-Emergentzietako Arreta / Emergentzietako Arabako Koord.-Vitoria-Gasteiz / Emergentzietako Gasteizko Tal-Vitoria-Gasteiz / Zentro koordinatzailea/Emergentzi Taldea-Zentro koordinatzailea/Emergentzi Taldea-Zentro koordinatzailea/Emergentzi Taldea / 7 ordu baino gehiagoko lanaldi jarraitua-> 12 orduko lanaldi jarraitua-12 Orduko txandak / 2HE-Data igarota
1	Emergentziak	Emergentziak-Emergentzietako Arreta / Emergentzietako Bilboko Taldea-Bilbao / Emergentzietako Arabako Koord.-Vitoria-Gasteiz / Zentro koordinatzailea/Emergentzi Taldea-Zentro koordinatzailea/Emergentzi Taldea-Zentro koordinatzailea/Emergentzi Taldea / 7 ordu baino gehiagoko lanaldi jarraitua-> 12 orduko lanaldi jarraitua-12 Orduko txandak / 2HE-Data igarota
1	Emergentziak	Emergentziak-Emergentzietako Arreta / Emergentzietako Bizkaiko Koord.-Bilbao / Emergentzietako Bilboko Taldea-Bilbao / Emergentzietako Uriosteko Tald-Ortuella / Emergentzietako Gernikako Tald-Gernika-Lumo / Zentro koordinatzailea/Emergentzi Taldea-Zentro koordinatzailea/Emergentzi Taldea-Zentro koordinatzailea/Emergentzi Taldea / Txandakakoa, 3 Txandatan-Txandakakoa, 3 Txandatan-Ez espezifiko gehiago / 2HE-Data igarota
1	Emergentziak	Emergentziak-Emergentzietako Arreta / Emergentzietako Gipuzkoako Koo-Donostia / San Sebastián / Emergentzietako Donostiako Tal-Donostia / San Sebastián / Emergentzietako Arrasateko Tal-Arrasate/Mondragón / Emergentzietako Arrasateko Tal-Arrasate/Mondragón / Zentro koordinatzailea/Emergentzi Taldea-Zentro koordinatzailea/Emergentzi Taldea-Zentro koordinatzailea/Emergentzi Taldea / 7 ordu baino gehiagoko lanaldi jarraitua-> 12 orduko lanaldi jarraitua-12 Orduko txandak / 2HE-Data igarota
2	Emergentziak	Emergentziak-Emergentzietako Arreta / Langraizko Larrialdietako Tald-Iruña Oka/Iruña de Oca / Emergentzietako Arabako Koord.-Vitoria-Gasteiz / Zentro koordinatzailea/Emergentzi Taldea-Zentro koordinatzailea/Emergentzi Taldea-Zentro koordinatzailea/Emergentzi Taldea / 7 ordu baino gehiagoko lanaldi jarraitua-> 12 orduko lanaldi jarraitua-12 Orduko txandak / 2HE-Data igarota
3	Emergentziak	Emergentziak-Emergentzietako Arreta / Langraizko Larrialdietako Tald-Iruña Oka/Iruña de Oca / Emergentzietako Arabako Koord.-Vitoria-Gasteiz / Zentro koordinatzailea/Emergentzi Taldea-Zentro koordinatzailea/Emergentzi Taldea-Zentro koordinatzailea/Emergentzi Taldea / 7 ordu baino gehiagoko lanaldi jarraitua-> 12 orduko lanaldi jarraitua-12 Orduko txandak / 2HE-Mugaegunik gabe